

## Susana Carregal, CIC biomaGUNEko Ikerbasque Research Fellow

CIC biomaGUNEko ikertzaile Susana Carregal [Ikerbasque Research Fellow](#) izendatu berri dute, material multifuntzional eta bioinspiratuen inguruko ikerketa egiteko biomedikuntzarako eta bioteknologiarako. Etorkizun handiko karrera zientifikoa eta nazioarteko esperientzia duten ikertzaile gazteak sustatzeko deialdia da.

Ikerbasque Fellow izendapenari esker, bere ikerketa-lerro independentea sendotzeko aukera izango du Carregalek: "5 urteko beka honek aukera emango dit bikaintasuneko deialdi publikoetan lehiatzeko, eta deialdi horiek, azken batean, aukera emango didate materialen zientziaren arloan abangoardiako aurkikuntzak garatzeko".

Carregal doktorea ikertzaile elkartua da [Biomarkatzaile Molekular eta Funtzionalen](#) taldean —Jesús Ruíz Cabello Ikerbasque irakaslea du buru—, eta lau doktorego-ikasleren tesiak zuzentzen ditu lankidetzan (haietako bat Gaiker zentro teknologikoarekin batera lankidetzan). Halaber, Carregal [CIBERES](#)-i atxikitzen zaio (Arnas Gaixotasunen Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroa).

Gaur egun, Carregal doktorea zenbait proiektu gauzatzen ari da, eta denek dute faktore komun gisa nanoteknologia biomedikuntzan aplikatzea: "Alde batetik, biriketako hesi zelularrak eta ez-zelularrak aztertzen ditugu, biriketako gaixotasunetarako eraginkortasun terapeutikoa areagotzeko inhala daitezkeen sendagai hobek garatzeko. Testuinguru horretan, biriketako fibrosiari aurre egiteko botikak hobetzeko lanean ari gara, eta laborategian sortzen ditugun nanokonposatuen eraginkortasuna aztertzen dugu saiakuntza aurreklinikoetan. Nanopartikula metalikoen diseinuan eta garapenean ere jarduten naiz, terapia katalitikoetan eragiteko gaitasuna duten eta irudi medikorako kontraste-agente eraginkor diren funtzio anitzeko agente gisa erabiltzeko. Azkenik, irudi medikorako kontraste-agente berriak diseinatzen ditugu, organismoan kalteak dituzten eremuak espezifikoki markatzeko, hala nola ateroklerosi-plakak, gaixotasun kardiobaskularren eragile nagusiak".

Carregal Kimikan doktoratu zen Vigoko Unibertsitatean (2009). Marburgeko Philipps Unibertsitatean, Melbourneko Unibertsitatean, Liverpooleko Unibertsitatean eta Buenos Airesko Unibertsitatean aritu da doktoratu ondoko ikertzaile gisa. Bere ibilbide laburrean, Ramón y Cajal ikertzailea izan da (2021), Progreso y Salud Fundazioaren doktoratu ondoko beka bat jaso du (2009), FPI doktoratu aurreko beka bat (2006) eta Galiziako Xuntaren doktoratu aurreko beka bat (2005).

Ikerbasque ikertzaile berriak eskerrak eman nahi dizkie "nire hautagaitza babestu duten bi Ikerbasque ikertzaileei, Pedro Ramos Cabrerri eta Jesús Ruiz Cabellori, ezin izango bainuen lortu haien laguntzarik gabe eta nigan konfiantzarik izan ez balute".

Era berean, erantsi du oso eskertuta dagoela "Ikerbasquerekin, egindako aintzatespenagatik, eta erakutsi duten adeitasun eta hurbiltasunagatik". Carregalek badaki aurretik lan asko dutela "esku artean ditudan ikerketa-proiektuak aurrera ateratzeko, baina ilusio handia dut eman didaten aukerarengatik".

Ikertzailearen iritziz, "EAE ingurune ezin hobea da nire karrera zientifikoa sendotzeko, Eusko Jaurlaritzak konpromiso sendoa baitu ikerketaren eta garapenaren sustapenarekin. Bereziki, Ikerbasque plataforma paregabea da funtsezko ezagutza sortzeko eta industria-sektorerara transferitzeko. Nire idealak bat datoz ikuspuntu horrekin, eta ahal dudan guztia egingo dut euskal gizartearen proiektu handi honetan parte hartzeko".